

Ukiezinak

J.R. ETXEBARRIA



AL Capone ganster famatuaren garaian Chicago inguruan ageri izan ziren polizia bereziek, dena libre zuten beren lanean, helburuak edozein metodo justifikatzen baitzuen. Tortura barne, zernahi egin zezaketen, legearen aldetik ezer gertatuko ez zitzaielako segurantzaz. 'Ukiezinak' ziren.

Duela gutxi, pertsonaia haiei buruzko film sekula ikusi dudana eskenarik gogorrenetakoa pantailaratu zuten telebistan. Segadan harrapaturiko gansterrari hitz eragiteko, polizietako batek —'onarena' egiten zuenak, alegia— lehentxoago hildako gansterkidea lurretik altxatu eta tiroaz zulatu zion gorpua, besterik gabe. Izuaren beldurgarritasuna adierazi zuten begira zegoen gaixoaren begiek. Eta tortura psikologiko horren bidez, hitz egitera behartu zuten. Helburu 'onak' justifikatu egin zuten metodoa. Edozein kasutan, Al Capone diru-kontuengatik kondenatu zuten; eginiko krimenengatik, ez.

Istorio errealek horrek gogora ekarri dit gure inguruko egoera, nahiz eta hemengo kasuan gansterrak eta poliziak batera ez ote dabilzan susmoa daukadan. Burruka antiterroristaren babespean, ia dena zilegi baita. Ukiezinak baitira, dagitena dagitela, dena libre baitute.

Hala ere, diru-kontuak tarteko, orain arteko ukiezin batzuek ukituak izan dira. Baina diruarena atxakia dela uste dut, zeren horiek guztiok estaliko bailirateke, benetako helburua lortu izan balute, alegia, euskal erresistentzia armatuarekin amaitu izan balute.

Ene eritzian, horixe da benetako arrazoia. Eta frogarik argiena, porrot hori aitortu nahi ez izatea da. Zeren askoz ere salaketa gogorragoak egin izan baitituzte besteren baten aurka, diru-kontu berberetaz gainera narkotrafikoaz aberastu dela esanez. Dena jakin ez dadin, ez dut izenik esango, baina goitik beherako aldatetetan ukitu gabekorik badago, zerbaitegatik izango delakoan nago. Horren inguruan daude benetako ukiezinak. Zergatik?

251.333

NEREA AZURMENDI



EHUN milatan utzi nituen azkenekoan Elkarrik bildutako sinadurak eta, orduan ere, harrigarria iruditu zitzaidan halako jendetza mahairako pauso bera ematera bultzatu duen kanpainaren emaitza. Harridura ez da, sinaduren errotioan, bikoizterari iritsi, baina galanta izaten jarraitzen du. 'Elkarrizketa eta akordioaren' alde egoteari nahi ahala nabardura aurkitzea ez da zaila, eta izango dira dudarik gabe sinatzaileen artean ordutako solasaldian kontzeptu bi horien inguruko adostasun batera iristeko modurik aurkituko ez duen mardoska. Baina abiapuntua bat dute, eta abiapuntua bera helburua baino garrantzitsuagoa izan daiteke une honetan, zer nahi duzun jakiteko sistema ona izaten baita nahi ez duzuna identifikatzea. Zenbakiak diotenez, asko dira, miloi laurdena, gaurko egoeran arnasa lasai hartzeko modurik aurkitzen ez dutenak. Zer eskaini die Elkarrik mahaira erakartzeko? Soluziorik ez, bai ordea soluziobidearen bila hasteko ilusiorik. Eta, San Antoniok benetan funtzionatzen duela frogatzen ez den bitartean, bila hastea da aurkitzeko sistemarik egokiena.

Sinaduraz betetako karpeta sorta baten eraginkortasuna zalantzan jarri daiteke, noski. Belloch jaunak jasotzen dituenak azkar asko pasako dira agian Corcuera eta Asuncionez Barne Ministeritzan ondo engrasatuta utzi ditzakioten makina dokumentu-jaleetara. Felipe Gonzalez ere ez da gizartearen iritziak hunkitzen duen horietakoa. Ikustea besterik ez dago NATOren aurkako botuei eskaini zien arreta. Baina Elkarrikoez sinadura hauen destinatzailetzat hartu dituztenen barrenak astintzea lortzen ez bada ere, ez da antzua izango bilketa, argi gelditu baita 250.000 lagun zerbaietan behintzat ados daudela. Eta hori ez du ekainaren 12ko hauteskundeetan alderdi batek ere lortu...

●egin

Profetak eta sukaldariak

Testuinguru horretan, berriro erabiltzen ari dira presoak. Jarrera pertsonaletatik ondorio orokorrak ateratzen dituzte; eta adierazpen askatasuna zenbait presok era jakin batean transmitituko ideia jakin batzuen transmisiora mugatuta gelditzen da. Ez dago inolako aukerarik kontrastea egiteko: ez dute onartzen —agian saiatu ere horretan ez dira saiatu— mikrofonoek edo kamerek jaso dezaten euskal preso politikok guztien artean hedatuena den errealitatea. Hain zuzen ere funtsezko kontzeptu bat barne hartzen duena, elkartasun kolektiboarena, egoera pertsonal eta kartzela baldintza desberdinak daudelako kontzientziarekin batera. Hain zuzen ere egunez egun zigorrak eta jipoiak, presoentzat eta familiarrentzat

HEMEROTEKA

egoera sinesgaitzak jasotzen dituen. Hain zuzen ere Barne eta Justizia Ministerioak zeharka onartzen duena behartuta sentitzen denean kontrolak areagotzera Seguratasun Indarrek presoak lekuz aldatzen dituztenean tratatu txarrak prebenitu edo ebitatzeko.

J. IRATZAR

●EL MUNDO

Diru berezien gainean

G.— Inoiz kobratu al duzu diru berezietatik?

E.— Erantzuteari beti uko egingo diodan galdera da, diru berezien funtsari berari dago-kio eta. Galdera desegokia da. Ukatzea edo ez ukatzea mamia-ri heltzea litzateke eta gero beste galdera batzuk erantzun beharko nituzke. Isilik egoteko



Bizia izango al da beste planetetan.

MÁXIMO / EL PAÍS

obligazioa daukat. Diru berezien gaia, diru erabilera den aldetik, konfiantza kontua da, hain zuzen ere baten bati errepideetatik gidatzeko baimena gizarteak eman diola esaten zaionean bezala (...). Baina diru bereziak erabiltzen zizutzen guztiak ustezko ustelak direla-

ko ondorio orokorra ateratzea azterketak edo beste edozein jardura erabiltzen dituen edozeini buruz gauza bera esatea bezain injustua da.

CARLOS CONDE DUQUE

(Espainiako Poliziako zuzendari nagusi ohia)

ZUZENDARIARI

Kontraeztarritik kontraesanak

Kontraeztarritik jan-edariak joan ohi direnean mina lehenik eta zalaparta hurrenik sentitu ohi dugu. Eta dena ezerezean gertatzeko azkenik, hots, eztlak eta enparauak.

Horrela bada kontuak, horrelako zerbait ikusten diot nik gaurko giza-uholdeari: kontraesana. Eta, zer da kontraesana? Ba horixe, kontraeztarritik datorren esana, edota bestela esanda, besteren eztarritik irteerako esana gure eginda beste horrenbeste gabe. Hau esan dutela, ba guk ere hau esan; ezetz bada beste hori dela, ba guk ere beste hori; eta horrela amaiezin batean. Gurea ez dena, edota bestera, guk sentitzen ez duguna esatea.

Ondorioz, janari guztia eztarritik pasa gabea denez, gose galanta!

Eta jakina, gose hori nolabait estali egin behar eta bakoitza bere jostailuaren bila hasten da; dela erlijioa, dela liburua, dela alderditxoa, dela erakundea, dela mistizismoa, dela sexoa, dela dirua, dela dozena bat titulu... Nahia=Desioa. Eta jostailuaren funtzioak finitu egiten duenean?...

Hor gabilza batetik bestera, leher-leher eginda eta lur jota. Salba!, Salba! deiadar

eta deiadar. Teoriaz gainezka, baina praktikarako bidean putz eginez.

Uste dugu objektua edota baldintza dela gure galera, eta ez gara ohartzen subjektuaren esku dagoela objektua eta ez alderantziz. Beti erudunaren bila gabilza, eta oso gutxitan arazoak konponbidean jartzen. Izan ere, hain gagoz jota eta makilatuak, ezen bestetarako ez bait dugu ematen.

Ondorioz, hau eta hori nahiago dugu Arantxa edota Mikel edota Ainhoa baino, hots, kontraeztarritik sorturiko kontraesanak.

PELLO SARRIEGI URRETABIZKAIA
Barrika (Bizkaia)

Euskarazko telebistari buruz

Munduan ez dago telebista katerik ET-Bren modukoa, ia erabat umeendako programazioa ematen bait du. Batek esan ahal diazait:

—Ez osorik umeendako, baduzu futbola ugari, eta baita ere informatiboak, Calleja kastellanoak zuzenduak.

Bainan, nik erantzun ahal diezaiot hala-koari, kirola ematen denean umei erakus-

ten zaie, antzeppen metaforiko baten bitartez, mundu hontako bizimodua, non lehia eta konpetitorea faktore oinarrizkoak diren, biktoria eta garapen, mota guztietakoak, ezberdinei buruz. Edukazioa da, beraz, eta umeendako bezala konideratu ahal daite. Gero falta da 'Gaur Egun' saioa, hori agian beharko litzateke, telebista honen estilo orokorrari jarraitze aldera, piska bat barrien umeztea:

— Txiribitonek prebarikazinua egin egin du, eta Gadget inspektoreak detenitu egin du Londres Hoteleko Casinuan, lapurtutako diru morduarekin gastatzen...

Eta holako fuste gabeko barriak.

Modu horretan munduan telebista bakarra litzateke euskaldun hau umei espezializatua...


Jakina, nik proposatu nahi nuke karta hontatik, beste kate bat egitea, euskarazkoa, helduago diren euskaldun oso eta parzialendako, bainan helduei buruz pensatua.

Ez litzateke aurrerapen txarra izango euskararen normalizazio bide gaitz horretan.

ROMAN GARMENDIA

Soraluze (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Gay eta lesbianen nazioarteko eguna

Gay eta lesbianek berri bat dakarte, jadanik pasa dira hogeitabost urte. Burruka zintzo hortan tinko bezain fuerte, gizarte osoak hartu behar dugu parte, denon berdintasuna eskuratu arte.

ARITZ LOPATEGI

Egunkaria

Batzarde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJD IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDA

Kontseilari Ordezkarria: INAKI URÍA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXEL O TAMENDI

Zuzendariordea: LUZIEN ETXEZAHARRETA

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna / 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo / ☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapuri / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/ 503 Posta kutxatila. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11